

LEHEN HEZKUNTZA MUSEOA GOZATU

“Hura ikusi, hau ikasi; hura sentitu, hauxe kontatu”

A. OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK

Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia

Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, ikasitakoa erabili eta beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko.

Honako osagai hauek ditu ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentziak:

- Informazioa bilatzea, aukeratzea, gordetzea eta berreskuratzea hainbat informazio-iturritatik (informazio-iturri inprimatu, ahozko, ikus-entzunezko, digital eta bestelakoetatik), eta iturri horien egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea eta buruz ikastea (pentsamendu analitiko).
- Informazioa interpretatzea eta ebaluatzea (pentsamendu kritikoa).
- Ideiak sortzea eta hautatzea (pentsamendu sortzailea).
- Baliabide kognitiboen erabilera estrategikoa egitea, ikasitakoa baliatuz eta beste egoera batzuetara transferituz.

B. DIZIPLINA BAITAKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

DISZIPLINA BAITAKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	LEHEN HEZKUNTZAKO ARLOAK	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASGAIK
A. Konpetentzia sozial eta zibikoa	A.1. Gizarte zientziak	A.1. Geografia eta Historia
B. Arterako konpetentzia	B.1. Arte hezkuntza	B.1. Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza

A. Konpetentzia sozial eta zibikoa.

Nork bere burua, norberaren taldea eta bizi duen mundua ezagutu eta ulertzea da, gizarte-zientzien jakintzak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz; zientzia horien berezko prozedurak eta metodologiak erabiltzea, autonomiaz eta herritarrei dagokien arduraz jarduteko bizitzaren ohiko egoeretan, gizarte guttiz demokratikoa, solidarioa, inklusiboa eta anitza lortzeko bidea urratzearen.

Honako osagai hauek ditu konpetentzia sozial eta zibikoak:

- Norbera banakako pertsona dela eta gizartean beste pertsona batzuekin bizi dela ulertzea, eta pertsona horiekin lanean aritzea eta antolatzea askotariko ezaugarriak eta xedeak dituzten taldeetan, maila bat baino gehiagotan (familian, eskolan, auzoan, herrian, nazioan eta gainerako mailetan).
- Norberaren gizartea ezagutzea, eta bereziki haren iraganeko eta egungo eraketa, antolamendua eta funtzionamendua; gizartea zer lurraldetan eta nola ezarrita dagoen jakitea, haren iraganaren kontzientzia hartzea eta gizakien ekintzak gizartean sortzen dituen arazoan aurrean modu positiboan jarduteko gaitasuna lantzea.
- Bizi duen inguruneaz jabetzen den herritarra izatea eta egoera hori onartzea, konpromisoa izanda eta elkartasuna adierazita; aintzat hartzea garaiko gizarteetako aniztasun soziala eta kulturala, eta, bereziki, egungo euskal gizartekoa, eta naturarekin, bere buruarekin eta gainerako pertsonekin harremanetan jartzeko era berrien bila aritzea, gizartea hobetu eta jasangarri bihurtzeko.
- Giza eskubideak izatea norberaren bizitzako eta gizarteko ekintzei eta egoerei buruzko iritziak osatzeko erreferente unibertsala eta norberak herritar gisa dituen eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko erreferentea; eta parte-hartzeko, begiruneko, justizia sozialeko eta elkartasuneko jokabideak lantzea, balioetan oinarritutako demokrazia gauzatzeko.
- Iraganean, edo gaur egun, bizikidetzaren tentsioak eta -gatazkak izan dituzten gizarte-taldeak, elkarri eragiten diotenak, historian zehar zer konfigurazio edo egitura izan duten jakitea; eta iraganaren gaineko kontzientzia kritikoa lantzea, etorkizunean egoera horiek konpontzeko prozedura baketsu eta demokratikoak erabiltzen jakin dezagun.
- Bizi duten mundua ulertzeko behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrera eskuratzea; hau da, munduaren alderdi fisikoak, sozialak eta kulturalak, iraganen izandako bizipen kolektiboak eta gaur egungo bizipenak, eta bizitza sozialari dagokion espazio fisikoa ulertzeko behar direnak, munduan eragile aktibo izateko.

B. Arterako konpetentzia.

Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta modu kritikoan balioestea, denbora- eta erabilera-testuingurutan, faktore estetikoek pertsonen eta gizartearen bizitzan duten garrantziaz jabetzeko. Era berean, arte-hizkuntzak ezagutzea, eta haien kodeak erabiltzea arte-mezuak ekoitzi eta nork bere burua ekimenez, irudimenez eta sormenez adierazi eta komunikatzeko.

Honako osagai hauek ditu arterako konpetentziak:

- Hizkuntza artistikoak adierazteko eta komunikatzeko baliabideak direla ulertzea, haiek norberaren arte-ekoizpenetan erabiltzea, eta hizkuntza horiek obra artistiko eta kulturaletan identifikatzea.
- Arte-produktuak era pertsonal eta arrazoituan sortzea hainbat egoera eta bizi-esparrutan, emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatze eta komunikatzeko.
- Dagozkien denboran eta kulturen interpretatzea arte-adierazpenak eta -ekoizpenak, eta horietan dauden funtzioak eta erabilerak aztertzea eta bereiztea, pertsonen bizitzan duten esanahia eta eragina ulertzeko.
- Gogoetaren eta kritikaren bidez balioestea ondare artistiko eta kultureko elementuak, herrien nortasunaren eta kulturen oinarri diren aldetik, herrien arteko hartu-emanaren, kulturen arteko elkarrizketaren eta esperientzia partekatuen harian.

C. SAN TELMO MUSEOAK LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEI ESKAINTZEN DIE...

LH 1-2 - Uretara!

NORENTZAT: Lehen hezkuntzako gizarte eremuko lehenengo zikloko ikasleak

HELBURUAK:

- Historiako etapa bakoitzaren ezaugarri nagusiak zein diren jakitea, etapa bakoitzeko gertaera garrantzitsuenak aztertzea eta ohartzea batzuk aldiberekoak direla eta beste batzuk elkarren segidakoak. Horren guztiaren helburua da historian zehar gertatu diren aldaketei buruzko iritzi pertsonal eta kritikoa eratztea eta ezagutza horiek une historikoak ongi ulertzeko erabiltzea.
- Gizakiak ingurune fisikoan eta gizarte-ingurunean dituen esku-hartzeen zenbait adibide ikusi eta kritikoki aztertzea, iraunkortasunaren ikuspegitik, ingurumena eta ondare historikoa eta kulturala babesteko, berreskuratzeko eta kontserbatzeko jarrera izateko eguneroko bizitzan.
- Inguruko testuinguru geografiko, sozial eta historikoko elementu garrantzitsuekin lotutako zalantzak eta problemak zein diren jakin, planteatu eta ebatzea. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliko dira informazioa bilatzeko eta informazioa eta ezagutzak trukatzeko, eta hipotesiak egitea konponbide alternatiboak aztertzeko eta ikaskuntza-prozesuari berari buruzko hausnarketa egiteko.
- Gatazkak izan badirela jakitea, eta eztabaidetan eta mahai-inguruetan jarrera konstruktibo, kritiko eta tolerantz partez hartzea, eta ikustea elkarrizketa eta desadostasunak izatea ezinbesteko baliabideak direla gizakien eta gizartearen arazoei konponbidea emateko, elkarbitzita ona lortzeko eta intolerantziarik eta tratatu txarrik egon ez dadin lortzeko.

EDUKI MULTZOA:

- Gure mundua eta haren kontserbazioa
- Gizartean bizitzea
- Denboraren Arrastoa

IRAUPENA: 2 orduko jardura da.

AZALPENA:

Gipuzkoarrok itsasoarekin erlazionatutako historia zabala dugu: hondartzak, arrantzaleak, portuak, itsasontziak... elementu hauek guztiek gure izaera moldatu egin dute. Itsasoa gure etxeko atarian izateak nola baldintzatu gaituen ikusiko dugu ekintza honen bidez. Ikasleek egunero ikus dezaketen elementu honek zer-nolako aldaketa sortu dizkigun ikusiko dute.

LH 1-2 - Hi bai artista!

NORENTZAT: Lehen hezkuntzako Arte hezkuntzako lehengo zikloko ikasleak

HELBURUAK:

- 1) Arte-hizkuntzen oinarriko teknikak, baliabideak eta konbentzioak ezagutzea eta erabiltzen jakitea, eta teknologia berriek sormen-lanetarako ematen dituzten aukera ugariak aprobetxatzea.
- 2) Trebetasun intelektualez, ekimenaz, irudimenaz eta sormenaz baliaturik, norberaren nahiz besteen sentimenduetan edo artelanetan oinarritutako ideiak birsortzea, norberaren sormen-lanak aberasteko.
- 3) Arte-jarduera kolektiboetan parte hartzea, jarduera horietan norberak arduraz jokatzeko, eta denen ekimen eta ekarpenak balioestea, taldean arte-lanen bat egitea helburu duten ekimenetan hain garrantzitsuak diren kooperazio-trebetasunak lantzeko.
- 4) Euskal Herriko nahiz beste herrialdeetako kultura-ondareko arte-adierazpenak ezagutzea eta balioestea, eta adierazpenok zaintzeko, babesteko eta etengabe berritzeko lanetan besteekin batera kolaboratzea, eta horretan, norberarenaz bestelako kulturetako pertsonekin lan egiteak eta esperientzia artistikoak trukatzeko denok aberasten gaituela ohartzea.

EDUKI MULTZOA:

- Erreferente plastiko eta musikalak hautematea, ulertzea eta interpretatzea.
- Arte-adierazpen plastiko eta bisualak ekoiztea, espresatzea eta sortzea.

IRAUPENA: 2 orduko jarduera da.

AZALPENA:

Irudiez inguratuta bizi gara. San Telmo Museoa Arte Ederretako bilduma bikaina du eta bilduma honetako koadro eta artelanak erakutsi nahi dizkiegu ikasleei. Zer da hor ikusten dena? Zertan ari dira? Nolako pertsona dela uste duzue? Pertsonaiak identifikatu egingo ditugu eta ondoren, beren gertaera edo bizitzako momenturen bat irudikatzen eskatuko diegu ikasleei. Artea, gauzak kontatzeko erreminta oso baliagarria dela ikusiko dute.

LH 3-4 - Eraikitza

NORENTZAT: Lehen hezkuntzako gizarte eremuko bigarren zikloko ikasleak

HELBURUAK:

- 1) Historiako etapa bakoitzaren ezaugarri nagusiak zein diren jakitea, etapa bakoitzeko gertaera garrantzitsuenak aztertzea eta ohartzeko batzuk aldiberekoak direla eta beste batzuk elkarren segidakoak. Horren guztiaren helburua da historian zehar gertatu diren aldaketei buruzko iritzi pertsonal eta kritikoa eratzeko eta ezagutza horiek une historikoak ongi ulertzeko erabiltzea.
- 2) Gizakiak ingurune fisikoan eta gizarte-ingurunean dituen esku-hartzeen zenbait adibide ikusi eta kritikoki aztertzea, iraunkortasunaren ikuspegitik, ingurumena eta ondare historikoa eta kulturala babesteko, berreskuratzeko eta kontserbatzeko jarrera izateko eguneroko bizitzan.
- 3) Inguruko testuinguru geografiko, sozial eta historikoko elementu garrantzitsuekin lotutako zalantzak eta problemak zein diren jakin, planteatu eta ebaztea. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliko dira informazioa bilatzeko eta informazioa eta ezagutzak trukatzeko, eta hipotesiak egitea konponbide alternatiboak aztertzeko eta ikaskuntza-prozesuari berari buruzko hausnarketa egiteko.
- 4) Gatazkak izan badirela jakitea, eta eztabaidetan eta mahai-inguruetan jarrera konstruktibo, kritikoa eta tolerantzia parte hartzea, eta ikustea elkarriketa eta desadostasunak izatea ezinbesteko baliabideak direla gizakien eta gizartearen arazoei konponbidea emateko, elkarbitzita ona lortzeko eta intolerantziarik eta tratatu txarrik egon ez dadin lortzeko.

EDUKI MULTZOA:

- Gure mundua eta haren kontserbazioa
- Gizartean bizitzea
- Denboraren Arrastoa

IRAUPENA: 2 orduko jarduera da.

AZALPENA:

Ikasleak etxetik ikastetxera joan dira, eta ikastetxetik San Telmo Museora etorri. Etxea seguru eta eroso egoteko leku bat da baina proposamen honen bidez, ikasleek etxe eta eraikuntzak ez direla beti horrelakoak izan ikusiko dute. Historiako hainbat eta hainbat eraikuntza tipologia ezagutuko ditugu eta denon artean gure herrixka propio bat sortuko dugu.

LH 3-4 - Nahastera!

NORENTZAT: Lehen hezkuntzako Arte hezkuntzako bigarren zikloko ikasleak

HELBURUAK:

- 1) Arte-hizkuntzen oinarrizko teknikak, baliabideak eta konbentzioak ezagutzea eta erabiltzen jakitea, eta teknologia berriek sormen-lanetarako ematen dituzten aukera ugariak aprobetxatzea.
- 2) Trebetasun intelektualez, ekimenaz, irudimenaz eta sormenaz baliaturik, norberaren nahiz besteen sentimenduetan edo artelanetan oinarritutako ideiak birsortzea, norberaren sormen-lanak aberasteko.
- 3) Arte-jarduera kolektiboetan parte hartzea, jarduera horietan norberak arduraz jokatzeko, eta denen ekimen eta ekarpenak balioestea, taldean arte-lanen bat egitea helburu duten ekimenetan hain garrantzitsuak diren kooperazio-trebetasunak lantzeko.
- 4) Euskal Herriko nahiz beste herrialdeetako kultura-ondareko arte-adierazpenak ezagutzea eta balioestea, eta adierazpenok zaintzeko, babesteko eta etengabe berritzeko lanetan besteekin batera kolaboratzea, eta horretan, norberarenaz bestelako kulturetako pertsonekin lan egiteak eta esperientzia artistikoak trukatzeko denok aberasten gaituela ohartzea.

EDUKI MULTZOA:

- Erreferente plastiko eta musikalak hautematea, ulertzea eta interpretatzea.
- Arte-adierazpen plastiko eta bisualak ekoiztea, espresatzea eta sortzea.

IRAUPENA: 2 orduko jarduerak da.

AZALPENA:

Gure bi begiekin mundua ikusteko gai gara. Pertsonak, eraikuntzak, formak eta koloreak ikusten ditugu. Baina, koloreak nondik "ateratzen" dira? Zergatik ikusten ditugu? Zenbat kolore daude? Nola sortzen dira? Arte Ederretako bildumaren bitartez galdera hauek guztiak erantzuten saiatuko gara eta ondoren, koloreekin jolastu eta esperimentatuko dugu gure tailer gelan.

LH 5-6 - Abenturara!

NORENTZAT: Lehen hezkuntzako gizarte eremuko hirugarren zikloko ikasleak

HELBURUAK:

- 1) Historiako etapa bakoitzaren ezaugarri nagusiak zein diren jakitea, etapa bakoitzeko gertaera garrantzitsuenak aztertzea eta ohartzea batzuk aldiberekoak direla eta beste batzuk elkarren segidakoak. Horren guztiaren helburua da historian zehar gertatu diren aldaketei buruzko iritzirik pertsonal eta kritikoa eratzeko eta ezagutza horiek une historikoak ongi ulertzeko erabiltzea.
- 2) Gizakiak ingurune fisikoan eta gizarte-ingurunean dituen esku-hartzeen zenbait adibide ikusi eta kritikoki aztertzea, iraunkortasunaren ikuspegitik, ingurumena eta ondare historikoa eta kulturala babesteko, berreskuratzeko eta kontserbatzeko jarrera izateko eguneroko bizitzan.
- 3) Inguruko testuinguru geografiko, sozial eta historikoko elementu garrantzitsuekin lotutako zalantzak eta problemak zein diren jakin, planteatu eta ebaztea. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliko dira informazioa bilatzeko eta informazioa eta ezagutzak trukatzeko, eta hipotesiak egitea konponbide alternatiboak aztertzeko eta ikaskuntza-prozesuari berari buruzko hausnarketa egiteko.
- 4) Gatazkak izan badirela jakitea, eta eztabaidetan eta mahai-inguruetan jarrera konstruktibo, kritikoa eta tolerantzez parte hartzea, eta ikustea elkarriketa eta desadostasunak izatea ezinbesteko baliabideak direla gizakien eta gizartearen arazoei konponbidea emateko, elkarbizitza ona lortzeko eta intolerantziarik eta tratatu txarrik egon ez dadin lortzeko.

EDUKI MULTZOA:

- Gure mundua eta haren kontserbazioa
- Gizartean bizitzea
- Denboraren Arrastoa

IRAUPENA: 2 orduko jarduera da.

AZALPENA:

Gipuzkoarrok itsasoa muga baino, ate bat bezala ikusi eta sentitu dugu historian zehar. Abenturara, lurralde eta biztanle berriak ezagutzera, baleak harrapatzea... arrazoiak milaka. Famatuak dira gure herria "zabaltzen" lagundu duten gipuzkoarrek eta hauek denak mapen eta kartografiaren laguntza izan dute beraien abenturarako. Guk ere, ikasleei abentura propio bat proposatu nahi diegu.

LH 5-6 - Forma ematera!

NORENTZAT: Lehen hezkuntzako Arte hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleak

HELBURUAK:

- 1) Arte-hizkuntzen oinarriko teknikak, baliabideak eta konbentzioak ezagutzea eta erabiltzen jakitea, eta teknologia berriek sormen-lanetarako ematen dituzten aukera ugariak aprobetxatzea.
- 2) Trebetasun intelektualez, ekimenaz, irudimenaz eta sormenaz baliaturik, norberaren nahiz besteen sentimenduetan edo artelanetan oinarritutako ideiak birsortzea, norberaren sormen-lanak aberasteko.
- 3) Arte-jarduera kolektiboetan parte hartzea, jarduera horietan norberak arduraz jokatzeko, eta denen ekimen eta ekarpenak balioestea, taldean arte-lanen bat egitea helburu duten ekimenetan hain garrantzitsuak diren kooperazio-trebetasunak lantzeko.
- 4) Euskal Herriko nahiz beste herrialdeetako kultura-ondareko arte-adierazpenak ezagutzea eta balioestea, eta adierazpenok zaintzeko, babesteko eta etengabe berritzeko lanetan besteekin batera kolaboratzea, eta horretan, norberarenaz bestelako kulturetako pertsonekin lan egiteak eta esperientzia artistikoak trukatzeko denok aberasten gaituela ohartzea.

EDUKI MULTZOA:

- Erreferente plastiko eta musikalak hautematea, ulertzea eta interpretatzea.
- Arte-adierazpen plastiko eta bisualak ekoiztea, espresatzea eta sortzea.

IRAUPENA: 2 orduko jarduera da.

AZALPENA:

Artea ez da koadroa sortzea bakarrik. Jarduera honetan eskultura izango da gure gaia eta Museoa duen bilduma aztertuko dugu. Nola sortzen da eskultura bat? Denak berdinak dira? Zein materiale erabiltzen dira? Chillida, Oteiza... eskulturez inguratuta bizi gara. Eskultura bat materialak kenduz edo jarriz sortzen direla ikusi eta gero, zergatik ikasle bakoitzak ez du bere eskultura propioa sortzen?

D. ETA IBILBIDE TEMATIKO MODUAN...

- LH 1-2
 - **Museo bat, hamaika kontu**
Museoko ibilbide orokor honetako hainbat objektuekin jolastuko dugu bertan dauden istorio ezberdinak ezagutzeko. Museoa ezagutzeko modu desberdina.
 - **Baserria**
Landaguneko lanbideen bitartez baserri girora egindako hurbilpena. Baserriaren inguruan dauden elementu, ohitura, objektu eta bizitza ezagutzeko aukera paregabea.
 - **Urgulleko Historiaren etxea**
- LH 3-4
 - **Museo bat, hamaika kontu**
Museoko ibilbide orokor honetako hainbat objektuekin jolastuko dugu leku honetan dauden istorio ezberdinak ezagutzeko. Museoa ezagutzeko modu desberdina.
 - **Alakiketan**
Ibilbide honetan mundu tradizionalaren deskubrimendua egiten da gure herrietako plazetan entzun dezakegun musikaren bidez. Entzun, ikusi eta ezagutu!
 - **Xoxo beltza San Telmon**
Ibilbide honetan Museoa dauden hainbat elementuekin heriotzaren fenomenoaren erritoetara hurbilpena egiten da.

San Telmo Museoa

- **Artearekin jolasean**
Umeak artearen mundura hurbiltzeko tailer ludiko-didaktikoa da "Artearekin jolasean", Arte Ederretako bilduma abiapuntutzat harturik.
- **Urgulleko Historiaren Etxea**
- LH 5-6
 - **Aztarnak oroimenean**
Museoko ibilbide orokor bat da hau, historiaurretik garai modernoan atariraino, euskal gizartea denboran zehar ezagutzeko.
 - **Badugu, badago**
Museoan ditugun hainbat elementuren laguntzarekin, euskara, haren historia eta euskal hiztunena hobeto ulertzeko ibilbidea proposatzen da hemen.
 - **Kalejirak**
Museotik kanpoko jarduera. Ibilbide tematikoak Donostiako ondare eta historia bertatik bertara ezagutzeko.
 - **Urgulleko Historiaren Etxea**